

## Deialdia

---

2011/06/22

# Michèle Audinek eta Antonio Altarribak zientzien eta letren arteko topaketa batean parte hartuko dute

**Matematikari eta Université de Strasbourgko katedradunak hitzaldi bat ere emango du Bilbon RSMEren mendeurrenaren ospakizunen barnean**

**Ostegunean, ekainak 23, 19.30etan, Bidebarrieta Liburutegian (Bidebarrieta kalea 4, Bilbo)** Michèle Audin matematikari eta Universidad de Strasbourgko katedradunak eta Antonio Altarriba, frantziar literaturan katedraduna UPV/EHU eta 2010eko Komiki Sari Nazionalak zientzien eta letren topagune izan nahi duen elkarrizketa batean parte hartuko dute.

Elkarrizketa OuLiPo (Ouvroir de Littérature Potentielle)ren akronimoa, hau da, Literatura Potentzialaren Tailerra) taldearen inguruan murgilduko da. Audin 2009tik da talde horretako kidea. 1960an sortu zuten OuLiPo taldea Raymond Queneau eta François le Lionnaisek, eta batez ere literatoak eta matematikariak izan dira bertako kideak, Italo Calvino, Marcel Duchamp, Harry Mathews, Ian Monk, George Perec, Jacques Roubaud eta abar bezala. Hain zuzen ere, literatura potentzialaren tailerra da eta matematikaren egiturak sartzen dituzte jokoan lan originalak sortzeko: literatura oulipoarra.

OuLiPo taldeak 50 urte bete zituen 2010ean. Beraien prestakuntza desberdinetatik, Antonio Altarribak eta Michèle Audinek talde bitxi horren oraina eta iraganaren inguruko inpresioak eskainiko dituzte. Marta Macho-Stadler matematikaria izango da moderatzailea.

Era berean, **ostiralean, ekainak 24, 18.30etan, Bidebarrieta Liburutegian (Bidebarrieta kalea 4, Bilbo)** Michèle Audin matematikari eta katedradunak hitzaldi bat eskainiko du “Las dos ideas de Sofia Kovalevskaya” izenburupean. Hitzaldi hau, Espainiako Matematika Elkarteak (RSME) bere mendeurrena ospatzeko Espainian zehar antolatu duen hamar hitzaldiko zikloaren baitan kokatzen da.

Hitzaldi honekin, unibertsitateko irakasle plaza bat eskuratu zuen Europako lehen emakumea, nihilista eta Pariseko Zientzien Akademiak ematen duen Bordin Saria eskuratu duen Sofia Kovalevskayaren ibilbidea berregin nahi da Michèle Audinen begietatik. Audinek Kovalevskayaren matematikari buruz hitz egingo du, eta baita bere ibilbide pertsonalari buruz ere. Ideia bi gutxi direla ematen du... baina André Weil frantziar matematikari handiak esaten zuen bezala: “matematikari gehienek ideia bakar bat dute, edukitzekotan, eta bizitza osoan zehar esplotatzen dute. Sofia Kovalevskayak ideia handi bi izan zituen”.